



ARAU-ERAGINARI BURUZKO MEMORIA

AGINDUA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN JARDUERA FISIKOAREN ETA
KIROLAREN ARLOKO PROFESIONALEK JARDUTEKO IZAN BEHAR DUTEN LEHEN
LAGUNTZAKO PRESTAKUNTZA ARAUTZEKOA.

I. JUSTIFIKAZIOA.

2022ko uztailaren 20an sartu zen indarrean ekainaren 30eko 8/2022 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzkoa, eta, lege horren artikuluetan, legez garatu beharra aipatzen da hainbatetan. Legearen 17. artikulua ezartzen du *legean araututako lanbideren batean jarduten duten pertsonak, kirol-jarduera gauzatzen den tokian bertan egoteko betebeharra badute, lehen laguntzako prestakuntza dutela egiaztatu beharko dutela eta gaineratzen du kirol-arloko sail eskudunak erregelamendu bidez ezarriko dituela aipatutako prestakuntza egiaztatzeko baldintzak eta prozedura, dagokion erantzukizunpeko adierazpenaren bidez.*

Erregelamendua garatzeko dei hori legearen hirugarren xedapen iragankorarekin konektatu behar da. Bertan zehazten da lehen laguntzako prestakuntzarik gabeko jarduera profesionala soilik baimenduko dela 2026ko urtarrilaren 1era arte. Horrek esan nahi du, nahitaez, jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko eragile, prestakuntza-zentro eta profesional guztiek lehenbailehen izan behar dutela exijitu daitekeen prestakuntza-edukiaren berri, ikastaroak eskaini eta horietan parte hartu ahal izateko.

Agindu hau ez dago jasota Urteko Plan Arauemailean. Nolanahi ere, komeni da gogoraraztea justizia-epaitegietan, xedapen orokorrak aurkaratu direnean Urteko Plan Arauemailean aurreikusita ez zeudelako, honako ondorioak eman direla, besteak beste:

«(...) administrazio publikoak ez daude mugatuta beren legezko eta arauzko ahalmenetan dagokion ekimena ez delako plan arauemailean sartu urtebeteko aurrerapenaz; izan ere, ezerk ez du eragozten plangintzan aurreikusi ez direnak onetsi ahal izatea. Plan arauemailea tresna programatikoa da, balio arauemailerik ez duena; eta, beraz, ezin du eraginik izan Ordenantzaren balioan».

(Valentziako Justizia Auzitegi Nagusiaren 2020ko azaroaren 24ko epaia).





Hau da, ezin da Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren arauzko boterea mugatu ekimena urteko plan arauemailean jasota ez zegoelako. Izan ere, plan arauemailea tresna programatikoa da, balio arauemailek ez duena; eta, gainera, ezin ditu aintzat hartu esku artean daukaguna bezalako xedapenak premia onestea behartzen duten arauzko gorabehera guztiak.

2024ko abenduaren 4an, lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntzako Politikako sailburuak Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko Aginduaren proiektua egiteko eta izapidetzeko agindua eman zuen.

Arau-eraginari buruzko memoria horretan dekretu-proiektu honen eskumenen eremuari lotutako honako esparru hauek aztertzen ditu: xedea; beharra; arau-proiektuaren aukera; eraginaren analisisia; proposatutako arauaren analisi juridikoa eta behin betiko onestera bideratutako prozedurazko *iter*.

II. ESKUMENA.

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 12. 1 artikulua ezartzen du xedapen horien gaiaren arloko eskumena duen saileko sailburu titularren aginduz hasiko dela prozedura hori. Izan ere, testu hori izango da araua egiteko prozeduraren funtsezko oinarri eta ardatz nagusi.

Horretarako, lege-ekimen honen oinarri dira Euskadiko Autonomia Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoari emandako kirol-arloko eskumenak, Konstituzioaren 148.1.19 artikuluari lotuta. Hain zuzen, Estatutuaren 10.36 artikulua xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du kirolaren arloan. Halaber, 10.22 artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du elkargo profesionalen eta tituludun lanbideen arloan, alde batera utzi gabe Konstituzioaren 36. eta 139. artikuluetan ezarritakoa.

Prestatzen ari garen araua kirolari buruzkoa da, eta gai hori Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari dagokio, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 6.1.g) artikuluan ezartzen diren sailen egitekoen eta jardun-arloen arabera.

Aurretik aipatutakoaren harira, prozedura hasteko agindua emateko eskumena gaiaren arloko eskumena duen saileko sailburu titularrena da.



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuaren arabera, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. eta 28. artikuluetan aipatzen diren eskumenak dagozkio sail horren sailburuari, eta sail berari dagozkio funtzio eta jardun-arloetan indarrean dauden xedapenek bere egiteko ematen dizkioten guztiak ere, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak xedatutakoaren ondorioz.

Hortaz, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.4 artikulua ezartzen du sailburuei dagokiela xedapen administratibo orokorrak ematea beren eskumeneko sailari dagokionez.

III. ARAUAREN XEDEA ETA IZAERA.

Aginduaren xedea da ekainaren 30eko 8/2022 Legearen (Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzkoa) 17. artikulua eskatzen duen lehen laguntzako prestakuntza egiaztatzeko baldintzak eta prozedura arautzea.

IV. ARAUA ONESTEKO BEHARRIZANA ETA EGOKITASUNA.

Arau-proiektuaren sorburua da Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legearen garapena, zeinaren 17. artikulua ezartzen duen legean araututako lanbideren batean jarduten duten pertsonak, kirol-jarduera gauzatzen den tokian bertan egoteko betebeharra badute, lehen laguntzako prestakuntza dutela egiaztatu beharko dutela.

Aginduak oinarri nahikoak eskaintzen ditu 8/2022 Legearen 17. artikulua aplikatzeko helburua lortu ahal izateko. Lehen laguntzako prestakuntza egiaztatzeko baldintzak eta prozedura ezartzen dituen erregelamendurik gabe, ezinezkoa da 8/2022 Legea aplikatzea.

Gainera, testua lehen laguntzen esparruan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideak arautzen dituzten beste lege batzuen arauzko garapenen esperientzian oinarritu da. Berezik, aintzat hartu da ekainaren 15eko 63/2022 Foru Dekretua, Nafarroan kirol-arloko lanbideetan aritzeko lehen sorospentako hasierako prestakuntza egiaztatzea arautzen duena. Foru Dekretu hori Nafarroako Kontseiluaren aldeko irizpena jaso zuen (2022ko ekainaren 6ko irizpena).



Aginduaren bideragarritasuna bermatzeko xedez, hasierako prestakuntza aurrez aurrekoa izateko betebeharra baztertu da, eta prestakuntza online egiteko aukera ere planteatu da. Euskadin, epe laburrean milaka pertsonari lehen laguntzen arloko prestakuntza emateko beharra dago, eta hori aurrez aurre emateko aukera desiragarriena balitz ere, ezinezkoa da.

Hortaz, arau-proiektua Administrazioak egin behar du, eta hura egitera behartuta dago, jatorria eta justifikazioa Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legearen erregelamendu bidezko garapenean baititu.

V. IZAN LITEZKEEN BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILE ETA EZ-ERREGULATZAILEAK.

Ez dago bestelako aukera erregulatzailerik; izan ere, ekainaren 30eko 8/2022 Legea garatzeko erregelamendua da, eta arauan bertan ezartzen da Legearen hainbat alderdi erregelamendu bidez garatzeko beharra.

VI. ERAGINAREN AZTERKETA.

a) Arau-aginduan duen eragina

Proiektatutako araua onesteak ordenamendu juridikoaren esparruan berritzea dakar; izan ere, lehenengo aldiz arautzen da Euskadin jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan lehen laguntzako prestakuntza izateko betebeharra. Hortaz, ez du eraginik indarrean dagoen ordenamendu juridikoan.

b) Aurrekontu-aginduan duen eragina

Proposatutako araua onesteak ez du gastu publikoa nabarmen areagotuko. Aginduak soilik ezartzen ditu lehen laguntzako prestakuntza egiaztatze baldintzak eta prozedura. Prestakuntzaren eskakizuna gutxienekoa da ordu-kargari dagokionez; eta, gainera, hasierako prestakuntza online egiteko aukera ematen da.

c) Eragina karga administratiboaren ikuspuntutik



Proposatutako araua indarrean sartzearen ondoriozko karga administratiboak kirolaren arloan funtzioak bere gain hartzen dituen administrazio-organoaren zerbitzuek hartuko dituzte bere gain; hala ere, ez da aurreikusten berariazko baliabide materialak edo giza baliabideak bideratu behar direnik xede horretarako.

d) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina

Aginduan hizkuntza-normalizazioarekin lotutako xedapen batzuk jasotzen dira. Ekainaren 30eko 8/2022 Legearen 5. artikuluan ezartzen da lege horren arau-garapenean lege horretan adierazten diren hizkuntza-eskubideak bermatzeko beste neurri batzuk jasoko direla. Manu hori betetzeko, laugarren xedapen gehigarrian jasotzen da Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Eskolak bi hizkuntza ofizialetako prestakuntza-materialak eskuragarri jartzea eta prestakuntza-ikastaroen eskaintza sustatuko dituela.

e) Izaera sozialeko eragina

Subjektu interesdunak izango dira jarraian zehazten diren lanbideetan aritzen diren kirol-langileak kontratatuta dituzten pertsona eta/edo erakunde publiko edo pribatuak: Jarduera egiten den tokian bertan egoteko betebeharra duten Heziketa Fisikoko irakasleak, kirol-begiraleak, kirol-entrenatzaileak eta/edo kirol-zuzendariak.

Zehazki, Euskal Autonomi Erkidegoko eta lurraldeko kirol-federazioak, Jarduera Fisikoko eta Kiroleko profesionalekin zerbitzuak eskaintzen dituzten Euskal Autonomi Erkidegoko udalerrriak, entitate lokalak eta bestelako administrazio publikoak; kirol-klubak edo -elkarteak eta egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten kirol-enpresak identifikatzen dira.

f) Gazteengan duen eragina

Aginduak ez du eragin nabarmenik gazteengan, dagokion erantzukizunpeko adierazpenaren bidez prestakuntza egiaztatzeke baldintzak eta prozedura besterik ez baititu xede.

g) Haur eta nerabeen gaineko eragina

Aurreko atalean adierazitako moduan, aginduak ez du arloko eragin nabarmenik haur eta nerabeengan, dagokion erantzukizunpeko adierazpenaren bidez prestakuntza egiaztatzeke baldintzak eta prozedura besterik ez baititu xede.



h) Ingurumenaren arloko eragina

Aginduak ez du arloko eragin nabarmenik ingurumenean, dagokion erantzukizunpeko adierazpenaren bidez prestakuntza egiaztatzeko baldintzak eta prozedura besterik ez baititu xede.

Nabarmendu behar da jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko profesionalak eta lehen laguntzako prestakuntza eman nahi duten zentroak behartzen dituela bitarteko elektronikoak erabiltzera dagokion erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikulua honako hau dio: «Erregelamenduz, administrazioek haiekin harremana nahitaez bitarteko elektronikoz izan beharra ezarri ahal izango dute zenbait prozeduratarako eta pertsona fisikoen multzo batzuentzat, haien gaitasun ekonomikoagatik, gaitasun teknikoagatik, dedikazio profesionalagatik edo bestelako arrazoiengatik egiaztatutako badago behar diren bitarteko elektronikoetarako irispidea eta eskuragarritasuna badutela».

Aginduak, aipatutako artikulua ematen dion ahalmena erabilita, 6. Artikuluan, pertsona fisikoei, administrazioarekin harreman elektronikoa izatera behartzen die. Betebehar hori lehen laguntzako prestakuntza egiaztatzean datza, eta, horretarako, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu behar da Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Lanbideen Erregistroan.

Paperik gabeko administrazio batek, funtzionamendu erabat elektronikoa oinarriturik, efikazia- eta efizientzia-printzipioak egokiago betetzeaz gain, kostuak aurrezten dizkie herritar eta enpresei, eta interesdunen bermeak indartu ere egiten ditu. Paperik gabeko administrazioari esker Administrazioek aurreztu dezakete, bereziki honako alderdi hauen ondorioz:

Paper tonak aurrezten dira.

Dokumentuak inprimatzeko tonerrak aurrezten dira.

Posta bidezko korreoa aurrezten da.

Biltegitratzeko espazio fisikoa aurrezten da.

Administrazio Publiko bakoitzak aurreztu dezakeen diru-kopurua aintzat hartu ahal izateko, Europako Batzordeak garatutako Standard Cost Model (SCM) metodoa kontuan hartuko dugu:

Aurrez aurreko izapidea batez beste 80 euro izaten da.

Izapide telematikoa batez beste 5 euro izaten da.



Izapide elektronikoko bakoitzeko aurrezkia ez da soilik ekonomikoa. Papera baliabide natural bat da, eta zuhaitzen zelulosa-zuntzen bidez fabrikatzen da. Zuhaitz batekin 12.000 orrialde egin daitezkeela kalkulatu da.

Bestetik, ezin dugu alde batera utzi online prestakuntzak edo urrutiko irakaskuntzak askotariko abantailak dituela teknologia berriei esker, eta online ikastaroek aparteko eragin positiboak dituztela ingurumenean, kutsadura-eragina neurri handi batean murrizten baita. Azterlanen arabera, modalitate birtualeko ikastaroak eskaintzeak % 90eko gastu energetiko txikiagoa dakar eta CO2 igorpenen % 87 gutxiago sortzen da aurrez aurreko heziketa-metodoekin alderatuta. Datu horiek agerian jartzen dute urrutiko hezkuntza oso neurri efizientea dela hezkuntzaren ingurumen-eragina neurri handi batean murrizteko.

Tresna digitaletan oinarritutako hezkuntza-metodologia ezarrita, formatu fisikoko materialak baliabide birtualekin ordez daitezke; eta, azken horiek infinituak eta berrerabilgarriak dira.

Halaber, urrutiko prestakuntzarako ez da instalazio berririk eraiki, egokitu edo erosi behar. Horrelako lanek gastu energetikoan eta baliabideen kontsumoan eragiten dute, eta baliabideak gero eta eskasagoak dira gure planetan.

i) Irisgarritasun unibertsala

Aginduak eragin positiboa izan dezake herritarren eskuragarritasun unibertsalaren eskubidearen esparruan. Azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren (zeinaren bitartez onartu egiten baita desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina) arabera honako hau da eskuragarritasun unibertsala: inguruek, prozesuek, ondasunek, produktuek eta zerbitzuek, hala nola objektuek, tresnek, lanabesek eta gailuek bete behar duten baldintza, segurtasunez eta erosotasunez ulertu, erabili eta gauzatu daitezen, ahal denik eta modurik autonomoen eta naturalenean.

Dekretuan zehazten da jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko profesionalentzako informazioan eta dokumentazioan sektore publikoko gailu mugikorretarako webguneen eta aplikazioen irisgarritasunari buruzko irailaren 7ko 112/2018 Errege Dekretuan ezarritako gardentasun-eskakizunak bermatu beharko direla.



j) Enpresa txiki eta ertainen gaineko eragina

Proiektatutako arauaren xedeak ez du inolako eraginik enpresak sortu, abiarazi eta enpresa horien funtzionamenduari dagokionez, eta, beraz, ez da beharrezkoa enpresen gaineko txostena egitea (ekainaren 28ko 16/2012 Legeak, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko ekintzaileei eta enpresa txikiari laguntzekoak, 6. artikuluan aurreikusitakoa).

k) Generoaren araberako eragina

Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaren bidez onartu ziren generoaren araberako eraginaren aurretiko ebaluazioa egitearekin eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak gehitzearekin lotutako eragina aurrez ebaluatzeko ildoak.

Horiek horrela, agindu-proiektuaren memoria ofizialarekin batera, generoaren eraginari lotutako azterlan xehatu bat gehitu beharko da. Hala ere, azpimarratu behar da gaur egun ekainaren 30eko 8/2022 Legea den arau-proiektuaren izapidetze administratiboa egin bitartean adierazitakoa, hau da, jarduera fisikoaren eta kirolaren lanbideen munduan emakumeak duen presentzia gizonezkoen maila kuantitatiboa lortzetik urrun dagoela. Emakumeen azpiordezkaritza nabarmena dago abiapuntuan; eta, ondorioz, baita desberdinkeria ere.

EAEn kirolera bideratutako baliabideen laneko egoerari eta kualifikazio profesionalaren egoerari buruz Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak 2016an argitaratutako azterlanaren arabera (azterlana), EAEn jarduera fisikoaren eta kirolaren lanbideak gauzatzean desparekotasuna nabarmena dela agerian uzten duten datuak daude:

a) Euskadin kirolera bideratutako giza baliabide profesionalen profil soziodemografikoaren kasuan, emakumezkoak % 26,9 ziren, eta gizonezkoak, aldiz, % 73,1. Egoera hori agerikoagoa da kirol-zuzendarien kasuan, % 81,85 gizonezkoak baitira.

b) Azterlanak agerian jartzen du eremu jakin batzuen maskulinizazioa:

- Maila aurreratuko modalitateko/diziplinetako monitoreak (% 89,2).
- Goi errendimenduko modalitate edo diziplinetako entrenatzaileak (% 94,8).
- Forma fisikoa berreskuratzeko eta hobetzeko entrenatzaileak (% 93,8).
- Goi errendimenduko modalitate edo diziplinetako zuzendariak (% 94).



c) Emakumezkoek jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan duten presentzia honako arlo hauetan areagotzen da:

- Egokitzapen fisikoko jardueretako monitoreak (% 55,1).
- Arreta berezia behar duten pertsonen bideratutako jardueretako monitoreak (% 64).
- Kirol anitzeko eskola-kiroleko jardueretako entrenatzaileak (% 37,4).
- Animazioko kirol-jardueretako kirol-zuzendariak (% 35,1).

Egoera horren ondorioz, 8/2022 Legeak, zioen azalpenean jaso bezala, lanaren eremuan emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunaren arloari arreta berezia eskaintzen dio. Hortaz, testuan, besteak beste, tratu- eta aukera-berdintasunerako politikak egitea sustatzen da, legean araututako lanbideetarako sarbideari dagokionez, lanbidea gauzatzeari dagokionez, sustapen profesionalaren esparruan, etab.

Aginduak lehen laguntzako prestakuntza egiaztatzeko baldintzak eta prozedura besterik arautzen ez dituenek, ez du eragin nabarmenik generoaren arloan. Aginduaren zirriborroko hirugarren xedapen gehigarrian, prestakuntza-ikastaroak diseinatu eta emateko orduan genero-ikuspegia kontuan izateko mandatua jasotzen da.

VII. ARAUAREN EDUKIA.

a) **Arautze egokiaren printzipioak eta arauaren kalitatea**

Agindu-proiektua bat dator Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan eta Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 4. artikuluan jasotako arautze egokiaren eta arau-kalitatearen printzipioekin.

Arauk interes orokor bat du, eta beharizan-printzipioa betetzen du, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legearen 17.2 artikuluko manua errespetatu nahi baitu. Agindu hau gabe ezin da legearen eskakizuna aplikatu.

Proporzionaltasun-printzipioa dela eta, aginduak xedea betetzeko ezinbesteko gutxieneko neurriak ezartzen ditu, gehiegizko karga administratiboak sortu gabe. Aurretik adierazi den moduan, ordu gutxiko prestakuntza bat eskatzen da, eta, gainera, prestakuntza online egiteko



aukera eskaintzen da. Halaber, prestakuntza-zentroek jarduteko aurretiazko berariazko administrazio-baimenaren eskakizuna saihestu da, eta, horren ordez, erantzukizunpeko adierazpen hutsaren tresna sinplea ezarri da. Labur esanda, ez dago aginduaren helburuak betetzeko beste neurri ez-murriztaileagorik edo betebeharrak gutxiago ezartzen duenik.

Xedapen horren bidez efizientzia eta efikaziaren printzipioak bermatzen dira, ez baita organo edo organismo berririk sortzen. Eta arreta merezia behar du azken xedapenetako lehenengoak. Haren bidez, gaikuntza ematen zaio kirolaren arloko zuzendaritza eskumeneko titularrari eranskinak aldatzeko sektore konplexu horretako beharrezko aldakorren arabera, erregelamendu-maila geldiarazi gabe.

Segurtasun juridikoaren printzipioari dagokionez, agindua gainerako ordenamendu juridikoarekiko modu koherentean aplikatzen da. Arau-esparru argia du, sektoreko eragileek erraz ezagut dezaten, nagusiki lehen laguntzako prestakuntza beharrak bete behar dituzten profesionalek eta, halaber, prestakuntza hori eman behar duten zentroek.

b) Arauaren egitura eta edukia.

Agindu-proiektuak xedapenaren titulua, azalpenak eta xedapenak ditu, lau xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat eta bi azken xedapen barne hartuta.

Aginduaren tituluak xedapenaren edukia islatzen du argi eta garbi, arauaren kategoria, aplikazio-data, agindua eman duen organoko titularra eta haren edukia adierazita.

Azalpenen zatiak ez du titulurik (zioen azalpena edo hitzaurrea) eta oso laburra da, artikuluen eduki laburrekin bat etorriz. Labur azaltzen ditu gaikuntza legal espezifikoak, lortu nahi den xedea eta eduki orokorra.

Testua ez da kapitulu eta apartatuetan banatu, oso artikulua gutxi daudelako; zehazki, hogeitun artikulua baino gutxiago ditu, eta gidaleroetan kopuru horretatik aurrera gomendatzen da kapituluak erabiltzea.

Lehenengo artikuluan, aginduaren xedea arautzen da.

Agindu honetan jasotako lehen laguntzako prestakuntza egiaztatzeko sistema erantzukizunpeko adierazpenaren figuran oinarritu da; sistema hori dago jasota espezifikoek ekainaren 30eko 8/2022 Legearen 17.2 artikuluan.



Agindu honek hasierako prestakuntza eskatzea erabaki du, eta, halaber, hasierako prestakuntza hori eguneratzea. Prestakuntza horren oinarrian jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan jarduteko beste lurralde-eremu batzuetan eskatzen diren prestakuntzen edukia dago; zehazki, Nafarroan eskatzen dena.

Bigarren artikulua lehen laguntzako hasierako prestakuntzaren eskakizuna jasotzen du.

Lehenengo apartatuan aginduaren aplikazioaren esparru subjektiboa lantzen da, eta legearen bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoarekin bat, ezartzen da lege horretan araututako jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideren batean jarduten duten boluntario guztiek, kirol-jarduera gauzatzean bertan egoteko betebeharra badute, lehen laguntzako gutxieneko prestakuntza egiaztatu beharko dutela.

Bigarren apartatuan ezartzen da bertan egoteko betebeharra duten lanbideren batean jardun nahi duen interesdunak ez badu ekainaren 30eko 8/2022 Legeak eskatutako lanbide-kualifikazio orokorra, baina lege horretako lehenengo eta bigarren xedapen iragankorretan deskribatutako egoeretakoren batean badago, pertsona horiek ere lehen laguntzako hasierako prestakuntza egiaztatu beharko dute aginduan ezarritako baldintzetan.

Eskatzen den hasierako prestakuntza sei ordukoa da; hau da, uztailaren 26ko 116/2023 Dekretuan (Euskal Autonomia Erkidegoan urpeko jarduerak eta urpekaritzako lanbide-jarduera berriak baimendu eta kontrolatzeko baldintzak ezartzen dituen) aurreikusitako lau orduak gainditzen ditu. Aginduan eskatutako prestakuntza (hasierakoa zein eguneratzea) Nafarroan eskatzen den berbera da. Izan ere, Nafarroa da jarduera fisiko eta kirolaren arloko lanbideetarako lehen laguntzako prestakuntzaren eskakizuna modu monografikoan garatu duen autonomia-erkidego bakarra.

Hirugarren artikuluan lehen laguntzako hasierako prestakuntzako eguneratze teoriko-praktikoaren eskakizuna jasotzen da.

Hasierako prestakuntzaz gain, aginduak ezartzen du lehen laguntzako prestakuntza eguneratu behar dela, baina horretarako ordu-karga gutxienekoa da. Horiek horrela, kirolaren arloko profesionalek eta ekainaren 30eko 8/2022 Legean aipatzen diren boluntarioek lehen laguntzako hasierako prestakuntza teoriko-praktikoa eguneratzeko prestakuntza-ekintzetan parte hartu beharko dute, aldizka. Prestakuntza-ekintza horiek, gehienez, hiru urtean behin egin beharko dira. Eta, gutxienez, bi orduko iraupena izango dute.



Eguneratzea aitortutako zentroetan egin beharko da, aginduan ezarritakoaren arabera. Ez dauka zentzurik agindua indarrean sartu ondoko hasierako prestakuntza zentro aitortuetan egitea, eta prestakuntza bera eta eguneratzea horietatik kanpo.

Laugarren artikuluan, prestakuntza titulazioaren edo lanbidera sartzeko ziurtagiriaren bitartez egiaztatzea arautzen da.

Hasierako prestakuntza bezalaxe, eguneratzea elektronikoki aurkeztu beharko da Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroan, aginduaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritako egoitza elektronikoan eskuragarri jarriko den erantzukizunpeko adierazpenaren eredu normalizatuaren bitartez.

Gaur egun, Euskadin profesional eta boluntario askok lehen laguntzako hasierako prestakuntza gainditu dute dagokion lanbidean sartu eta lanbide horretan jarduteko titulazio akademikoaren, diplomaren edo gaikuntza-ziurtagiriaren bidez. Hori dela eta, aginduak prestakuntza dokumentu horien bidez egiaztatzeko aukera ematen du.

Bosgarren artikuluan prestakuntzaren egiaztapena arautzen da, lanbidera sartzeko gaitzen duen titulazioak edo ziurtagiriak prestakuntza hori jasotzen ez duen kasuetan.

Kasu horretan, aginduak ezartzen du eskatutako lehen laguntzako prestakuntza egiaztatuta izango dutela egoera hauetakoren batean daudenek:

- a) Lanbide-heziketako askotariko tituluetakoko "Lehen laguntza" prestakuntza-modulua gainditu dutenek.
- b) Konpetentzia-atal hau egiaztatu ahal izatea: "UC0272-2: Istripu edo larrialdietan lehen parte-hartzaile gisa aritzea".
- c) Agindu honen babesean aitortutako zentroek emandako prestakuntza-ikastaro bat gainditu izana egiaztatu ahal dutenek; betiere, arlo horretan gutxienez sei ordu egiaztatzen badituzte.

Lehen laguntzako hasierako prestakuntza egiaztatuta dutenek, nahiz eta lanbidean sartzeko erabilitako titulazioak konpetentzia hori jaso ez, osasun-adarreko unibertsitate-titulurik edo lanbide-prestakuntzarik baldin badute, han ikasitako edukiren batek lehen laguntzarekin zerikusia badu eta gutxienez sei orduko prestakuntza jaso badute arlo horretan.



Seigarren artikulua lehen laguntzako prestakuntza gainditu izanaren erantzukizunpeko adierazpena jorratzen du.

Manuak ezartzen du Euskadin bertan egoteko beharra duten jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan jardun nahi duten pertsonak lehen laguntzako prestakuntza egiaztatu beharko dutela erantzukizunpeko adierazpenaren bidez. Adierazpen hori elektronikoki aurkeztuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroan, aginduaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritako egoitza elektronikoa eskuragarri jarriko diren eredu normalizatuen bitartez.

Hasiera batean, ez da beharrezkoa izango lehen laguntzako prestakuntza gainditu izanari buruzko erantzukizunpeko adierazpen independenterik; hortaz, dagokion lanbidean jarduteko erantzukizunpeko adierazpen orokorrean lehen laguntzako prestakuntzari buruzko apartatu bat jasoko da. Aurrekoa gorabehera, erantzukizunpeko adierazpenaren berariazko eredu bat egongo da prestakuntzaren eguneraketa egiaztatzeko.

Boluntarioek, gainera, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute Erregistroan, baina beren datuak ez dira inskribatuko eta publikatuko.

Agindu honetan aurreikusita ez dagoen guztiari dagokionez, erantzukizunpeko adierazpena Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroa arautzen duen dekretuak arautuko du.

Zazpigarren artikulua agindu hau indarrean jarri ondoren lehen laguntzako prestakuntza emateko aitortutako zentroak arautzen ditu.

Zentroak aitortzea ofizialak ez diren prestakuntzak emateko kontrol administratiboko tresna bat da, eta proportzionaltasun-kanona errespetatzen du, horretarako ez baitira neurritz gabeko edo beharrezkoak ez diren kargak ezartzen. Aurretiazko baimen administratiboaren erregimena ezartzeko aukera baztertu da.

Zortzigarren artikuluan, ikastaroen komunikazio-betebeharra lantzen da.

Lehen laguntzako hasierako prestakuntza egiaztatzeko edo prestakuntza hori eguneratzeko ikastaroak eman nahi dituzten zentroyen titular diren pertsona fisikoek edo juridikoek erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute elektronikoki Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko kirolaren arloko zuzendaritza eskudunean, aginduaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritako egoitza elektronikoa eskuragarri jarriko den ereduaren arabera.



Erantzukizunpeko adierazpena aurkezteak zentroa aitortuko du aginduaren ondorioetarako, adierazpena aurkezten den egunetik bertatik, kirolaren arloan eskuduna den Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko dituen eskumenei kalterik egin gabe.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko kirolaren arloko zuzendaritza eskudunak edozein unetan eskatu ahal izango dio aitortutako zentro bati aipatutako betekizunak behar bezala betetzen direla egiaztatzen duten agiriak aurkezteko, eta interesdunak aurkeztu egin beharko ditu. Lehen laguntzako prestakuntzak emateko administrazio publikoen beste organo batzuek aitortutako zentroek ere erantzukizunpeko adierazpen hori aurkeztu beharko dute.

Azkenik, bederatzigarren artikuluan ziurtagiriak arautzen dira.

Prestakuntza-jardueraren kontrol administratibo handiagoa egin ahal izateko eta iruzurrak saihesteko, aginduak eginiko prestakuntzak gainditu izana egiaztatzeko ziurtagiriak ere arautzen ditu. Ziurtagiri hori agindu honetako II. (hasierako prestakuntza) eta IV. (Prestakuntzaren eguneratzea) eranskinetan jasota dauden ereduari jarraikiz emango da. Era berean, prestakuntza ematen duten erakundeek edo pertsonak egindako ikastaroen eta ziurtagirien barne-erregistroa mantendu beharko dute.

Zalantzarik gabe, horrek guztiak erraztu egingo du kirolaren arloko ikuskaritzak gauzatzen duen edozein ikuskapen-plan.

Berme osagarri gisa, ezartzen da kirolaren arloko zuzendaritza eskudunak prestakuntza-jarduera aitortzeko ebazpena emango duela eta xede horretarako fitxategian inskripzioa egingo du. Otsailaren 5eko ECD/158/2014 Aginduaren (kirol-hezkuntzako jardueren curriculum-alderdiak, baldintza orokorrak eta ondorioak arautzen dituenak, urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuaren lehenbiziko xedapen iragankorrak aipatzen dituenak) antzeko irizpideak erabili dira.

Aginduak lau xedapen gehigarri ditu.

Lehenengo xedapen gehigarriak bestelako araubide bat jasotzen du, administrazio publikoarekin lotutako heziketa fisikoko irakasleen lehen laguntzako prestakuntzaren betekizunari buruzkoa. Administrazio publikoarekin administrazio- edo lan-zuzenbideak araututako zerbitzu-harreman baten bidez lotuta dauden heziketa fisikoko irakaslearen lanbidean soilik jarduten duten eta lehen laguntzako prestakuntzarik ez duten pertsonen kasuan, prestakuntza-jarduera hori egin ahal izango dute aginduaren babesean aitortutako zentroen bidez edo Eusko Jaurlaritzako hezkuntza-arloko sail eskudunak ezarritako irakasleen prestakuntza-



planaren arabera. Hau da, prestakuntza ikasturte bakoitzean zehar nahitaez bete behar dituzten prestakuntza-orduetan egin dezakete.

Ekainaren 30eko 8/2022 Legea indarrean jarri zenean lehen laguntzako prestakuntza hori ez zuten irakasleek ere 2026ko urtarrilaren 1a baino lehen egin beharko dute.

Hori behar bezala betetzea benetan garrantzitsua da legearen hirugarren xedapen iragankorrenekin bat, prestakuntza hori epe horretan lortzeko betebeharra ez betetzea lanpostutik mugiarazteko arrazoitzat hartu ahal izango baita, otsailaren 19ko 2/1993 Legean (Euskal Herriko Autonomia Elkarteko Unibertsitateko kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzkoa) ezarritakoaren babesean, eta, halaber, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 52. artikulua a) apartatua ezarritako gero ezagutu edo agertu zaion gauzaeztat har daiteke.

Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko profesionalak, oro har, Erregistroan aurkeztu behar duten prestakuntzari buruzko erantzukizunpeko adierazpena ez zaie eskatuko administrazio publikoarekin administrazio- edo lan-zuzenbideak araututako zerbitzu-harreman baten bidez lotuta dauden eta soil-soilik heziketa fisikoko irakasleen lanbidean jarduten duten profesionalak. Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzako hezkuntza-arloko sail eskudunak hiru hilean behin bidali beharko du Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistrora aginduan eskatzen den gutxieneko, hasierako eta eguneratzeko prestakuntza egiaztatzen duten irakasleen zerrenda.

Bigarren xedapen gehigarrian, egoitza elektronikoan modu iraunkorrean eskuragarri egon behar duen informazioaren eta dokumentazioaren erregimena arautzen da. Xede horretarako, ezartzen da jarraibideak, erantzukizunpeko adierazpenen ereduak eta gainerako ereduak euskaraz eta gaztelaniaz eskuragarri egon beharko direla Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan.

Aginduaren hirugarren xedapen gehigarrian genero-ikuspegia lantzen da. Bertan ezartzen da genero-ikuspegia aintzat hartuko dela prestakuntza-ikastaroak diseinatzean eta ematean.

Azkenik, laugarren xedapen gehigarriak hizkuntza-normalizazioaren arloko aurreikuspen bat jasotzen du, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatze aldera. Ekainaren 30eko 8/2022 Legearen 5.3 artikuluan ezarritako manua da. Horren arabera, Legebiltzarrak agintzen du lege horren arau-garapenean hizkuntza-eskubideak bermatzeko beste neurri batzuk jaso daitezela. 5. artikulua, halaber, "kirol-prestakuntza euskalduntzea" adierazten du.



Xede horretarako, laugarren xedapen gehigarriak ezartzen du Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Eskolak lehen laguntzako materialak eta prestakuntza-ikastaroak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan ematea sustatuko duela.

Aginduak xedapen iragankor bat dauka.

Agindu honek xedapen iragankor bakar bat dauka, agindua indarrean sartu aurreko lehen laguntzako prestakuntzei buruzkoa. Xedapen iragankor horren arabera, agindua indarrean sartu aurretik egindako lehen laguntzako prestakuntzak badira eta titulazio akademiko edo ziurtagiri ofizialetara bideratutako prestakuntzetan sartuta ez badaude, honako hauek emandako prestakuntzen egiaztagiriak bakarrik izango dira baliozkoak:

- a) Administrazio publiko orokorreko zein instituzionaleko zentroak.
- b) Sektore publikoko erakundeetako zentroak, administrazio publikoak ez badira.
- c) Heziketa-zentro ofizialak, publikoak zein pribatuak.
- d) Elkargo profesionaleko zentroak.
- e) Gurutze Gorriko zentroak eta osasun-arloko prestakuntzen esparruan homologazio, aitortpen edo akreditazio ofizial motaren bat izan duten erakunde pribatu guztietakoak.

Bere aldetik, Aginduak bi azken xedapen ere baditu.

Azken xedapenetako lehenengoan kirolaren arloan eskumena duen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Zuzendaritzako titularraren gaikuntza orokorra gehitzen da, bere eskumeneko eskuduntzan agindua garatzeko eta egikaritzeko beharrezkoak diren ebazpenak eman ahal izateko, bereziki eranskinak aldatu ahal izateko.

Azken xedapenetatik bigarrenak arauaren indarraldia arautzen du. Irizpide orokorra jarraitu da; hots, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Ez dago arrazoirik legeari epe berezirik ezartzeko.

Aurrekoa gorabehera, lehen laguntzako prestakuntza gainditzeari buruzko informazioa jasotzen duten erantzukizunpeko adierazpenak aurkezteko betebeharra Euskal Autonomia Erkidegoko



Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroa arautzen duen dekretua onartzearen baldintzapean dago. Dekretu horretan, dagozkion erantzukizunpeko adierazpenak aurkezteko epeak ezarriko dira.

VIII. IZAPIDETZEA.

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren Legeak (XOEPL) Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideek xedapen orokorrak egiteko jarraitu beharreko administrazio-prozedura arautzen du, Gernikako Estatutuaren 10.2 artikulua (autogobernatzeko erakundeen antolamendu, erregimen eta funtzionamendua) eta 10.6 artikulua (Euskal Autonomia Erkidegoaren Zuzenbide substantibotik eta berezko antolaketaren berezitasunetik datozen administrazio-prozedurako arauak) emandako eskumena erabiliz.

Era berean, izaera orokorreko xedapenak egiteko prozesuan kontuan hartu beharko da Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko Erabakia, zeinaren bidez Izaera Orokorreko Arau Xedapenak Izapidetzeko jarraibideak ezartzen diren.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan xedatzen dena betetzeko, agindu-proiektua ele bitan idatziko da, jendaurrean modu ofizialean jartzeko.

Xede horrekin, IVAPeko Itzultzaileen Zerbitzu Ofizialak (IZO) itzuliko du testua, honako hauetan ezartzen den moduan: i) arau-xedapen orokorrak elektronikoki izapidetzeko aplikazio informatikoaren erabilizailearen eskuliburua; (ii) Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Akordioa (bertan onartzen da zer neurri jartzen diren bi hizkuntzatan idazteko lege, legegintza-dekretu, dekretu edo agindu forma hartzen duten xedapen orokorrak); eta (iii) XOEPLren 4j), 5, 14.3, 14.5 eta 27.3 artikulua.

XOEPLren 17. artikuluan ezarri bezala, entzunaldi eta informazio publikoko izapideak beti egin beharko dira herritarren eskubide eta interes legitimoek zuzenean eragiten zaienean. Hortaz, 6/2022 Legearen 17. artikuluan ezarritako entzunaldi eta informazio publikoko izapidea egingo da, erakunde desberdinek ekarpenak egin ditzaten (Euskadiko eta Lurraldeko Federazioek, Euskal Kirol Federazioen Batasunak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek, Euskadiko udalerriek, entitate lokalak eta bestelako administrazio publikoak).

Agindu-proiektua XOEPLn eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da, lege-izaera duten arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran herritarren parte-hartzeari dagokionez.



Agindu-proiektuaren testua idazteko, agindu honetan esandakoa hartuko da oinarritzat, eta kontuan hartuko dira bilatzen diren helburuetara ondoen egokitzen diren aukera guztiak, bai eta ezarritako araudiaren egokitasuna eta legezketasuna bermatzeko beharrezko jo eta egingo diren kontsulten eta txostenen emaitzak ere.

Dekretu-proiektua idazten amaitutakoan, Jaurlaritzako Lehenengo Lehendakariordea eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak aurretiaz onetsi beharko du.

Aurreikusitako erregulazioaren eragin zuzena jaso dezakeen autonomia erkidegoko Administrazioak parte hartuko du prozeduran, XOEPLren 18. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Honako nahitaezko txosten hauek eskatuko dira:

- a) Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Hizkuntza Politikako sailburuordearen txostena, xedapen orokorrek euskararen erabilera normalizatzeko zer eragin duten eta hizkuntza arloan indarrean dagoen araudia betetzen duten ala ez argitzeko, Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua bete dadin.
- b) Herritarrak Artatzeko eta Administrazioa Berritzeko Zuzendaritzaren txostena, 317/2024 Dekretuak, urriaren 29koak, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, 21.1.c) artikuluan xedatzen duenaren arabera.
- c) Kirolaren Euskal Kontseiluaren txostena, Kirolaren Euskal Kontseilua arautzen duen azaroaren 7ko 220/2000 Dekretuaren 4.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.
- d) Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Juridiko Nagusiak eginiko legezketasun-txostena, 6/2022 Legearen 22. artikuluekin bat.
- e) Ekonomia- eta arau-kontrolako txostena, Kontrol Ekonomikoko Bulegoarena, honako hauetan xedatuaren arabera: (i) Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren 25. artikulua; (ii) 464/1995 Dekretua, urriaren 31koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituena; (iii) XOEPLren 23. artikulua; eta (iv) Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 313/2024 Dekretuaren 7.a) artikulua.



Agindu-proiektuaren izapideak bukatuta, eta Gobernu Kontseiluak araua onartu baino lehen, prozedura osoaren memoria labur bat prestatuko da, XOEPLren 24.2 artikulua araberako. Memoria horretan, aurrekariak eta agindako izapideak jasoko dira.

Agindu-proiektuaren publikitateari dagokionez, Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren izapidetze-jarraibideak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakian xedatutakoaren arabera, hasteko agindu hau publiko egingo da Legesarea partekatuko lankidetzarako gunean.

Halaber, aurretiaz onartzeko dagokion agindua Legesarea partekatuko lankidetzarako gunean argitaratuko da.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritakoaren arabera, legean xedatutako publikitate-agindua betetzeko, proiektuaren testua Legegunean argitaratuko da.

Era berean, Jaurleari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 64. artikulua araberako, agindu-proiektu hau onartu ondoren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Bukatzeko, instrukzio-organoarekin lotuta, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuaren arabera, Jaurleari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. artikuluan aipatzen diren eskumenak dagozkio sail horren sailburuari, eta sail berari dagozkio funtzio eta jardun-arloetan indarrean dauden xedapenek bere egiteko ematen dizkieten guztiak ere, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak xedatutakoaren ondorioz.

Gasteizen, sinadura elektronikoan ageri den egunean.

Amaia Izagirre Díaz

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren
Zuzendaritzako aholkulari juridikoa

Gorka Iturriaga Madariaga

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendaria

JARRAIBIDEEN I. ERANSKINA

GENEROAREN ARABERAKO ERAGINARI BURUZKO TXOSTENA

ARAU-PROIEKTUAREN EDO ADMINISTRAZIO-EGINTZARAKO PROPOSAMENAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

1.– Arau-proiektuaren edo administrazio-egintzarako proposamenaren izendapena:

Agindua, Eusko Jaurlaritzako Lehenengo Lehendakariordea eta Kultura Eta Hizkuntza-Politikako Sailburuarena, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko profesionalak jarduteko izan behar duten lehen laguntzako prestakuntzari buruzkoa.

2.– Sail edo Zuzendaritza sustatzailea:

Kultura eta Hizkuntza Politika Saila.
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza.

3.– Hala badagokio, proiektuarekin edo proposamenarekin zerikusia duten arau, plan eta bestelako agiriak:

8/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzkoa.

4.– Arau-proiektuaren edo administrazio-egintzarako proposamenaren helburu orokorrak:

Agindu honen xedea da ekainaren 30eko 8/2022 Legearen (Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzkoa) 17. artikulua eskatzen duen lehen laguntzako prestakuntza egiaztatze baldintzak eta prozedura arautzea.

5.– Gizonen eta emakumeen berdintasuna bultzatzeko helburuak:

Agindua indarrean sartzen denean, emango diren prestakuntzen edukian genero ikuspegia txertatuko da. Helburua genero guztiak ordezkatuta egotea da ikastaroen materialen adibideetan. Gaur egun, oso zaila da lehen laguntzako tekniken adibideen irudietan emakumeak irudikatuta ikustea. Adibidez, aho-ahoaren teknikako irudietan ohikoa da gizonezkoak ikustea soilik teknika hori praktikatzeko, pazienteak, ordea, emakumeak zein gizona izaten da; baina adibide horietan ia ez da emakumerik ikusten praktikatzailerik gisa. Era berean, bihotz-biriketako errehabilitazio maniobren adibide gehienetan, gizonari egiten zaio masaje kardiakoa bularraren gainean. Oso zaila da bihotz-biriketako maniobren beste adibide batzuk aurkitzea, emakumeek pairatzen dituzten sintomei aurre egitekoak hain zuzen ere. Esate baterako minak lepoan, barailan, sorbaldetan edo sabelaren goiko aldean. Hori dela eta, agindu hau indarrean jartzen denean, gizonak eta emakumeak bi figurak ordezkatzen dituzten irudiak sartu nahi dira (hartzailea eta jardulea) prestakuntzaren materialean.

GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN ALDEZ AURREKO EBALUAZIOA

6.– Aurreikusten al da arauak edo administrazio-egintzak emakumeei eta gizonen ekarriko dizkien onurek edo haien emaitzek lagundu egingo duela sektoreko desberdintasunak murrizten?

Ez. Aginduak lehen laguntzetako prestakuntza egiaztatzeko baldintzak eta prozedura baino arautzen ez dituen heinean, ez du eragin nabarmenik generoaren arloan.

EAEn kirolera bideratutako baliabideen laneko egoerari eta kualifikazio profesionalaren egoerari buruz Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak 2016an argitaratutako azterlanaren arabera, EAEn jarduera fisikoaren eta kirolaren lanbideak gauzatzean disparekotasuna nabarmena dela agerian uzten duten datuak daude:

a) Azterlanaren arabera, Euskadin kirolera bideratutako giza baliabide profesionalen profil soziodemografikoaren kasuan, emakumezkoak % 26,9 ziren, eta gizonezkoak, aldiz, % 73,1. Egoera hori agerikoa da kirol-zuzendarien kasuan, % 81,85 gizonezkoak baitira.

b) Azterlanak agerian jartzen du eremu jakin batzuen maskulinizazioa:

- Maila aurreratuko modalitateko/diziplinetako monitoreak (% 89,2).
- Goi errendimenduko modalitate edo diziplinetako entrenatzaileak (% 94,8).
- Forma fisikoa berreskuratzeko eta hobetzeko entrenatzaileak (% 93,8).
- Goi errendimenduko modalitate edo diziplinetako zuzendariak (% 94).

c) Emakumezkoek jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan duten presentzia honako arlo hauetan areagotzen da:

- Forma fisikoa berreskuratzeko jardueretako monitoreak (% 55,1).
- Arreta berezia behar duten pertsonen bideratutako jardueretako monitoreak (% 64).
- Kirol anitzeko eskola-kiroleko jardueretako monitoreak (% 37,4).
- Animazioko kirol-jardueretako kirol-zuzendariak (% 35,1).

Egoera horren ondorioz, 8/2022 Legeak, zioen azalpenean aitortzen den bezala, arreta berezia eskaintzen dio emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren gaiari lanbide-eremuan. Legearen 6. artikulua ezartzen du araugarapenean neurriak jasoko direla emakumeen eta gizonen arteko parekotasuna ezartzeko, jarduera fisikoaren eta kirolaren lanbideetan pertsona guztien arteko berdintasuna lortze aldera; neurri horien artean sartuko dira, besteak beste, soldatak parekatzea eta emakumeek ordezkari txikia duten jarduera fisikoaren eta kirolaren lanbideetan duten presentzia handitzeko neurriak».

Agindu hori betetz, aginduak hirugarren xedapen gehigarrian jasotzen du prestakuntza-ikastaroak diseinatzean eta ematean genero-ikuspegia kontuan hartzeko agindu bat. Alde horretatik, xedapen gehigarriak ezartzen du genero-ikuspegia txertatuko dela prestakuntza-ikastaroen edukien diseinuan eta ikastaroetan, eta kontuan hartuko dela sexu edo genero desberdineko pertsonen presentzia, bai artatutako pertsonen artean, bai jarduleen artean.

7.– Aurreikusten al da arauak edo administrazio-egintzak desagerrarazi edo, gutxienez, murriztu egingo dituela baliabideetarako sarbidean dauden desberdintasunak?

Bai. Etorkizuneko arauak aurreikusten du sexu edo genero desberdineko pertsonen presentzia prestakuntza ikastaroetan kontuan hartzea, bai artatutako artean, bai jarduleen artean.

8.– Erabakiak hartzeko garaian, gizonen eta emakumeen ordezkapen orekatua edo, gutxienez, esparruan duten ordezkapenaren antzeko ordezkapena aurreikusten al du ematekoa den arauak edo administrazio-egintzak?

Ez. Etorkizuneko arauak ez du inolako eraginik ordezkari erabakiak hartzeko garaian.

9.– Aurreikusten al da arau edo administrazio-egintzak proposatutako helburu eta neurriak baliagarri izango direla emakumei eta gizonen lotutako arau sozialak eta balioak gainditu edo aldatzeko?

Bai. Emakundek "Generoaren arabeko eraginaren ebaluazioa kirolean" gidan ezartzen duen bezala, kirol-ekintzan eta erakundeetan nagusi den androzentrismoa existitzen da, eta emakume kirolariek gizarte-aitorpenik ez jasotzea, horiek dira emakumeak lehia-jarduerara hurbiltzeko eta horrekiko interesa izan dezaten dauden trabak. Gainera, emakumeen ibilbide profesionala eta pertsonala oztopatzen dituzte arlo horretan.

Aginduak, ematen diren prestakuntza-ikastaroen edukian genero-ikuspegia sartzea aurreikusten duen heinean, kirol-munduan emakumeei esleitzen zaizkien balioen ikuspegi soziala aldatzen laguntzen du, emakumeak kirol-jardunean ikusarazten baititu.

Era berean, prestakuntza-ikastaroak ematean sexu edo genero desberdineko pertsonen presentzia kontuan hartzea aurreikusten du aginduak, eta horrek emakumeak kirol-lanbideetan sartzea sustatzen du, prestakuntza erraztean..

10.– Bermatzen al da diskriminazioa saihestu eta berdintasuna bultzatzea helburu duten arauak eta bestelako tresna juridikoak beteko direla eta haiek hobetzeko aukera izango dela?

Bai, ordezkapen orekatuaren printzipioa betez, 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenaren 3.10 artikuluan ezarritakoa.

**EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA BULTZATZEKO
ETA EZBERDINTASUNAK EZABATZEKO NEURRIAK**

Jaso al da neurririk arau edo administrazio-egintzaren proiektuan...		<i>Adierazi zer artikulutan jasotzen diren neurriak eta egin haien deskribapena.</i>
... genero-ikuspegia txerta dadin sustatzeko? Bai	<input type="checkbox"/> emakumeen eta gizonen egoerek erakusten dituzten aldean ezagutza hobetzen da.	<i>Bai. Genero-ikuspegia prestakuntza-ikastaroen edukien diseinuan eta irakaskuntzan txertatuko da.</i>
	<input type="checkbox"/> emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna jasotzen da printzipio moduan, helburu moduan edo adierazpen nahiz azalpen gisa.	<i>Ez</i>
	<input type="checkbox"/> hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten edo sustatzen da.	<i>Bai. Testua hizkuntzaren erabilera ez-sexista sustatuz idatzi da. Hala ere, geroago beste berrikuspen bat egingo da.</i>
	<input type="checkbox"/> genero-gaieci buruzko prestakuntza duten pertsonen eta/edo berdintasunaren alde lan egiten duten erakundeen partaidetza sustatzen da.	<i>Ez</i>
	<input type="checkbox"/> eduki edo irizpide moduan jasotzen da berdintasuna (onartzeko, baloratzeko edo betetzeko), hautatze-prozesuetan, laguntzak eta hitzarmenak egiteko prozesuetan, prestakuntza-jardueretan, etab.	<i>Ez dagokio</i>
	<input type="checkbox"/> beste batzuk, zehazki: _____	<i>Ez</i>
... emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua sustatzeko? Bai	<input type="checkbox"/> hautatze-epaimahaietan.	<i>Ez</i>
	<input type="checkbox"/> sariak emateko epaimahaietan.	<i>Ez</i>
	<input type="checkbox"/> kontsulta-organoetan.	<i>Ez</i>
	<input type="checkbox"/> zuzendaritza-organoetan.	<i>Ez</i>
	<input type="checkbox"/> beste batzuetan, zehazki: _____	<i>Bai. Kontuan hartuko da sexu edo genero desberdineko pertsonen presentzia prestakuntza ikastaroetan, bai artatutakoaren artean, bai jarduleen artean.</i>
... ekintza positiboak lantzeko? Bai	<input type="checkbox"/> emakumeentzat.	<i>Ez</i>
	<input type="checkbox"/> gizonak berdintasunaren alde inplikatzeko.	<i>Ez</i>
	<input type="checkbox"/> beste batzuk, zehazki: _____	<i>Ez</i>
... itxuraz neutroa dena baina generoaren arabera eragin onuragarria izan dezakeena? Ez	<input type="checkbox"/> indarkeriaren biktimentzat.	<i>Ez</i>
	<input type="checkbox"/> guraso bakarreko familientzat.	<i>Ez</i>
	<input type="checkbox"/> mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaileentzat.	<i>Ez</i>
	<input type="checkbox"/> beste batzuentzat, zehazki: _____	<i>Ez</i>
... askotariko diskriminazioa pairatzen duten emakumeen desberdintasun-egoerak berdintzeko? Ez	<input type="checkbox"/> adinaren arabera.	<i>Ez</i>
	<input type="checkbox"/> gizarte-mailaren arabera.	<i>Ez</i>
	<input type="checkbox"/> sexu-aukeraren arabera.	<i>Ez</i>
	<input type="checkbox"/> desgaitasunaren arabera.	<i>Ez</i>
	<input type="checkbox"/> etnia eta/edo arrazaren arabera.	<i>Ez</i>
	<input type="checkbox"/> nazio-jatorriaren arabera.	<i>Ez</i>
	<input type="checkbox"/> beste batzuen arabera, zehazki: _____	<i>Ez</i>

Ez	... debekuak edo zehapenak ezartzekoa denik?	<input type="checkbox"/> sexuagatiko diskriminazioak egiteagatik.	<i>Ez</i>
		<input type="checkbox"/> hizkuntzaren eta irudien erabilera sexista egiteagatik.	<i>Ez</i>
		<input type="checkbox"/> beste arrazoi batzuegatik, zehazki: _____	<i>Ez</i>

Arau edo administrazio-egintzaren edukiaz gain, aurreikusten al da bestelako neurririk...		<i>Deskribapena</i>	
Ez	... berdintasunerako helburu eta neurrien eraginkortasuna osatu edo handitzeko?	<input type="checkbox"/> hedapena indartzeko ekintzak.	<i>Ez</i>
		<input type="checkbox"/> jarraipena egiteko eta ebaluatzeako jarduerak.	<i>Ez</i>
		<input type="checkbox"/> estatistikak egitea eta azterlan espezifikoak egitea.	<i>Ez</i>
		<input type="checkbox"/> Informazio-, sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak.	<i>Ez</i>
		<input type="checkbox"/> arauak, planak edo programak egokitzea edo prestatzea.	<i>Ez</i>
		<input type="checkbox"/> berdintasunerako planak egitea.	<i>Ez</i>
		<input type="checkbox"/> egiturak eta zerbitzuak sortzea.	<i>Ez</i>
		<input type="checkbox"/> beste batzuk, zehazki: _____	<i>Ez</i>